



# **LABek Lehendakariaren proposamenaren inguruan egindako gogoeta**

---

*Noviembre de 2002*

# LABek Lehendakariaren proposamenaren inguruan egindako gogoeta

## 1. PROPOSAMENA ETA KONTESTU POLITIKOA

Espainia eta Frantziako Estatuak Euskal Herriaren kontra jarraitutako inposaketa eta ukapen estrategia zalantzan jar-tzen ari dira, gero eta neurri handiagoan, ibilbide historiko eta jardun politiko desberdinak eta kontraesankorrak dituz-ten sektore politiko, sindikal eta sozialak, bai eta euskal gizartearen zati bat ere.

Ildo honetan, Lizarra-Garazi Akordioak ekarri zuen inflexio-puntutik aurrera beste ibilbide bati ekin genion eta, bertan, bi lehia politiko handi agertzen dira batera. Alde batetik, Euskal Herriaren eta bi estaturen artekoa dugu; erronka hone-tan, Madril eta Paris aldaketa bultzatzen duten indar politiko, sindikal eta sozial guztiak ahultzeko eta baldintzatzeko egiten ari diren eraso politiko, juridiko, mediatiko eta errepresiboa da ezaugarri bereizgarria. Bestetik, 98ko irailetik aurrera Euskal Herria onartzeko eta euskal herritarren erabakiak errespetatzeko eszenatoki bat finkatu nahi duten sek-toreen inguruan dagoen erronka zehatza aipatu beharra dago.

Ibilbide horretan hainbat etapa erre dira, bai eta gezurrezko irtenbide politikoetarako abaguneak ere. Euskal Herriak egun bizi duen testuinguru politikoa herritarrek aldaketa politikoa eta irtenbide demokratikoak lortzeko urteetan era-kutsi duten gogo biziaren ondorioa da. Horrek proposamenak egitea eskatzen du, Euskal Herriaren autodetermina-ziora bideratutako aldaketa baten alde egiten duen eta gero eta zabalagoa den masa kritikorekin bat etorriko diren proposamenak hain zuzen ere.

Gorabehera politiko-ektoraleskin eta sektore politiko eta sozialen arteko desadostasunekin bada ere, ibilbidea egite-ko prozesuak etapak burutzen jarraitzen du. Gero eta garbiago agertzen dira Euskal Herriaren eta Estaturen arteko harreman demokratikoak egonkortuko dituen eta elkarbizitza politikorako esparrua finkatuko duen esparruaren edu-kiak: gure errealitate nazionalaren onarpena eta gure etorkizunari buruz erabakitzeko eskubidea.

Oinarritzko ezaugarri hauek dituen bilakaera politikoaren barruan, Espainiako Estatuaren prozesuaren kon-trako presioa areagotzen ari da ezker abertzalearen egitura politikoak legez kanpo uztearen bidez, era-kundeen adierazpenak (Gasteizko Legebiltzarrarenak, Udalenak eta abar) eta euskal gizartearen gehien-goaren gaitzespena kontuan hartu gabe. Nabarmena denez, esparru autonomikoaren deslegitimazioa zen-bat eta handiagoa izan eta "jauzi" politiko batetik zenbat eta hurbilago egon, are mingarriagoak eta anti-demokratikoagoak izango dira Espainiako Estatuak martxan dagoen prozesua baldintzatzeko eta atzera eginarazteko erabiliko dituen tresnak.

Espainiako gobernuak eta honen adar judizialak –Garzon epaileak– abuztuan eta irailean hartutako neurriak testuin-guru honetan kokatu behar dira eta euskal eszenatoki politikoaren kontrako "GAL politikoa" direla esan daiteke. Izan ere, diktadura batekoak diren neurri antidemokratiko hauek zuzenean jasotzen dituen ezker abertzalea da baina hel-burua aldaketa-prozesua bera da.

Proposamen hau aztertzeke garaian oso kontuan hartzekeak dira, halaber, Ertzaintzaren ekintzen eta Barne Sailaren erabaki politikoen bitartez Ezker Abertzalearen kontra hartutako garrantzi politiko handiko erabaki juridiko-errepresi-boen operatibizazioan Gasteizko Gobernuak agertu duen jokatzeko moduaren kontraesanak.

Ildo honetan, berriz ere salatu nahi dugu Gasteizko Gobernuaren jardunean Espainiako legeria onartzeko eta bere gain hartzeko nagusi izan den printzipioa. Gobernuak funtsezko eskubide indibidual eta kolektiboak zapaldu ditu, Bilbon eta Donostian faxisten eskubideak ahalegin handia eginez defendatu baditu ere.

Ikuspegi politiko honetatik abiatuta ekin nahi diogu Lehendakariak LABi igorri dion proposamenaren azterketari. Edo,

hobe esan, LABen zati bati igorri dionari; izan ere, dirudienez Nafarroa, Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako afiliatuak Euskal Herria izeneko errealitate geografiko edo demografiko baten osagaitzat hartzen dira, ez ordea proposamen politiko zehatz baten osagaitzat.

Nolanahi ere, LAB euskal erakunde sindikal nazionalak ondoko gogoetak eta ekarpenak planteatu nahi ditu:

## **2. PROPOSAMENAREN EDUKIAREN AZTERKETA**

Azpinarratu beharra dago proposamenaren hiru zatiek ez dutela lotura logikorik. Lehen zatian egiten den balantzea lorez apainduta dago eta lorpen handi modura aurkezten direnak beste edozein Autonomia Erkidegoren kudeaketa arruntari lotutako neurriak eta programak besterik ez dira.

Bigarren zatian, ambiguitasenez betetako literatura baten bidez, Gernikako Estatutuaren betetze zorrotza eta eskumen batzuk (soziolaboralak bereziki) alde bakarretik garatzeko proposamena konbinatzen dira eta oso nabarmena da, botere-espazioei dagokienez, Madrilgo Gobernuari aurre egiteko borondate politikorik eza.

Azkenik, hirugarren zatiak ez du koherentziarik aurreko biek. Prozesu nazional eta demokratiko baterako oinarririk gabe, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarako botere politikoko egitura berri bat planteatzen da baina egitura honen ardatzak ez datoz bat duela bi hamarkada baino gehiagotik mantentzen eta garatzen ari den teoria eta praxiarekin.

Beraz, egungo egoera politikoak eskatzen dituen sinesgarritasuna eta proiektzioa emango dizkiooten oinarririk gabeko dokumentu-proposamen desorekatu baten aurrean gaudela esan daiteke.

### **2.1. Lehen zatia: Gure konpromisoa bakearekiko eta elkartasunarekiko**

#### **1. atala.- ETORKIZUNERAKO ALTERNATIBA EUSKAL GIZARTEARENTZAT**

Atal honen barruan, indarkeria politikoaren arrazoiei eta adierazpenei buruzko ikuspegi partzial bat agertzen da. Egungo indarkeria-errealitateak islatzen badira ere, modu deskribatzailean eta desorekatuan agertzen dira (ETAren jardunean oinarrituta) eta, dirudienez, errealitate horiek ez dute zerikusirik oinarritzko egoera antidemokratiko batekin, Euskal Herriaren eskubide nazionalen onarpen-ezarekin alegia.

Zentzu honetan, ezin dira parekatu, proposamenean iradokitzen den bezala, irtenbide politiko eta demokratikoak aurkitzeko edozein prozesurekiko boikotarekin jarraitzen duen Espainiako Gobernuaren posizio politikoa alde batetik, eta egoera politiko desberdinetan gatazka gainditzeko elkarrizketa eta negoziazio alternatibak aurkeztu dituen ezker abertzalea bestetik. Hortaz, indarkeriaren testuinguruan –sustraietan zein konpontzeko borondatean– zuzeneko erantzukizunik bada, erantzukizun horren oinarritzko erreferentzia Espainiako Gobernu da.

Gainera, onartezina da 25 urteotako marko konstituzional-estatutarioan zehar Gasteizko Gobernuak, eta sostengatzen duten alderdiek, garatu duten iharduerari buruzko aipamenik ez egitea. Ezker Abertzaleak Autodeterminazio Eskubidean oinarritutako bakearen aldeko borrokari ekin dion bitartean, Ibarretxe jaunaren alderdia (EAJ-PNV) Euskal Herriaren eskubideak ukatuz gatazkaren eragile zentrala bilakatu den marko politikoa gestionatzen aritu da. Eta, are gehiago, ibilbide horretan, Gasteizko Gobernuak berak, Madrilkoarekin elkarlanean, euskal herritarren eskubide indibiduak eta kolektiboak aurkako hainbat erabaki eta ekimen burutu ditu.

#### **2. atala.- ELKARTASUNAREKIKO ETA GARAPEN JASANGARRIAREKIKO KONPROMISO SOZIALA, ONGIZATEAREN GILTZARRIA**

Kapitulu hau politikoki zuzenak diren terminoz eta konnotazio aurrerakoiak dituzten kontzeptuz josita dago (egungo literatura politikoan denek erabiltzen dituztenak): “gizarte-erakuntza”, “garapen jasangarria”, “elkartasuna”, “gizarteratzea”...

Baina, Gasteizko Gobernuak gizarte-eraikuntza bati omen dagokion eredu baterako garatu dituen "oinarriak, ekimenak eta programak" aipatzeko garaian, lehen erreferentzia positiboa Kontzertu Ekonomikoaren negoziazioaren ingurukoa da. LABen irakurketa guztiz kontrakoa da: Kontzertu Ekonomikoarekin gertatutakoa Estatuaren aurrean amore eman izanaren eta erakunde bati eska dakioken duintasunik txikiena ere galdu izanaren adibide garbia da.

Gobernuak bultzatutako ekimen-sorta zabalaren barruan (guztiak positibotzat hartzen dira proposamenean), elkartasunari eta gizarteratzeari buruzko atala azpimarratu beharra dago. Hasteko, familien laguntzarako Erakundearteko Plana eta 0 urtetik 3ra bitarteko hezkuntza eta laguntza tartearen Antolamendua aipatzen dira lana eta familia uztartzeko tresna gisa. Genero-berdintasunaren alde egiteko Emakunderen Ekintza Positiboko Planak eta Gazteen Ekintza Plana ere aipatzen dira. Gizarte-baztertzearen kontrako berriazko neurrien artean berriz, gizarte-larrialdiko laguntzak, Auzolan programa, oinarritzko errentaren egokitzapena (sindikatuak gizarte-laguntzako soldataren inguruan egin dako eskaeretatik urrun oraindik) eta Etorkinei Laguntzeko Plana agertzen dira.

LABek, bere garaian, kritika zorrotzak egin zizkien neurri hauei, bai beren eduki-urritasunagatik, bai erregimen autonomikoari dagozkion eskumenen kudeaketa soilari erantzuteagatik.

Atal honen barruan, elementurik aipagarriena lan-kolokatasunaren tratamendua da. Izan ere, bidegabetzat eta irain-garritzat hartzen da eta kalifikazio hori harrigarria da Administrazioa kolokatasun-espazio ugariarekin (hala nola osasun-arloan, irakaskuntzan eta erakunde autonomikoen bestelako zerbitzuetan) kudeatzen duen Gobernuaren dokumentu batean. EAJ ez da inoiz agertu kolokatasuna bultzatzeko egin diren berrikuntzen kontra. Aitzitik, helburu horrekin ezarritako neurri gehienen alde egin du argi eta garbi.

Dena dela, kontraesan hauek alde batera utzita, "Estatu mailan laneko behin-behinekotasuna eta kolokatasuna geldiaraziko duen eta lan egonkorri lehentasuna emango dion legegintza-ekimen bat eskatzeko" proposamenak garbi erakusten du zein den arazoari aurre egiteko asmo politikoa. Espainiako Estatuarekiko mendeko jarrera hau ez dator bat dokumentuaren beste leku batzuetan subiranotasunaren alde egiten diren deiekin. Beraz, Lan Harremanetarako Euskal Esparruaren (LHEE) aldarrikapenak eta kolokatasunaren arazoa gizarte-elkarrizketarako edozein foroaren gaitan barne hartzeko eskaerak indarrean jarraitzen dute.

Garapen jasangarriari buruzko atalean "pertsonek eta gizatalde baztertuenezikiko gizarte-elkartasunari eta birbanatzeari" lotutako politika nabarmentzen da. Benetan garatutako zerga-politikan ikus dezakegunez ordea, PFEZ zergaren berrikuntza ekonomikoki hobekien dauden sektoreen mesederako da, zerga-iruzurrari eraginkortasunez aurre egiteari uko egiten zaio eta zerga-oporrak eta mota orotako diru-laguntzak onartzen zaizkie enpresariei.

Geratzen diren erronken artean, gizarte-babesa aipatzen da lehenik eta behin. Beharrezko tresnak Gizarte Segurantzaren erregimen ekonomikoa bere gain hartzea (Estatutuan aurreikusi bezala) eta gizarte-aurreikuspen osagarria orokor egitea izango liriteke. Ez da aldarrikatzen, beraz, gizarte-segurantzako sistema propio bat osatzea. Aitzitik, Espainiako sistemaren kudeaketa soila besterik ez da planteatzen, EAJko parlamentariak bere garaian Kongresuan emandako laguntza izan zuen Toledoko Itunaren aurreikuspenak garatzeko Estatuak ezarritako arau-oinarriekin. Bestalde, Elkarkidetzak EAEko Administrazioaren mendeko enplegatu publiko guztiengana ez zabaltzeko jarrera ez dator bat dokumentuaren adierazpenarekin.

### **3. atala.- KONPROMISO ETIKOA. PERTSONA GUZTIEN GIZA ESKUBIDE GUZTIAK ERRESPETATZEA, BAKEAREN GILTZARRIA**

Atal honetan, Euskal Herrian bake-eszenatoki bat eraikitzeke oinarri politikoa kokatu nahi da. Gatazkari irtenbide bat emateko eszenatoki batek Euskal Herriko gizonezko eta emakumezko guztien eskubide indibidual eta kolektibo guztiekiko errespetua eskatzen duela aipatzen da eta LAB ados dago horrekin. Ibarretxeren proposamenak ordea, Euskal Herriko zati baten eskubide indibidual eta kolektiboen arazoari besterik ez dio erantzuten eta, beraz, gatazka zabalik uzten du.

Hau da, proposamenean ez da eskubideen subjektua kontuan hartzen edo, beste modu batean esanda, proposamenak gatazka politikoaren muina alde batera uzten duela dirudi.

Oinarrizko kontsiderazio honetatik abiatuta, gehiegikeria eta, batez ere, koherentzia politikorik eza da nagusi erakunde-erantzukizunetik planteamendu horien alde egiten denean.

Sektore jakin batzuen (PP eta PSOEn) eskubideak bermatzeko ahalegin handiari kontrajarrita, hortxe dugu gure herrialdeko sektore politiko eta sozial garrantzitsu baten eskubide indibidualak eta kolektiboak zapaltzen dituzten legeak edo ordenamendu juridikoak betetzeko jarrera zipaioa. Hau da, alde batetik Arkauten ahalegin handiak egiten dira eskubideak urratzen direneko egoera jakin bati erantzuteko eta, bestetik, Batasunaren egoitzak ixten dira, manifestatzeko eskubidea urratzen da eta Espainiako legaltasun politiko eta juridikoa hartzen da bere gain.

## **2.2. Bigarren zatia: Gure konpromiso elkarbizitzarekiko eta normalkuntza politikoarekiko**

### **4. atala.- 1979KO ESTATUTU-ITUNA OSORIK BETETZEKO KONPROMISO DEMOKRATIKOA**

Estatuari 19 arlotako eskumenen transferentzia eskatzen zaio eta, eskaerari erantzun ezean, Gobernuak alde bakarretik eskumenak bere gain hartuko dituela ohartarazten da, horrek dakarren kostu ekonomiko handiagoarekin, "gero zurrizko izango den aurrerakin" gisa ("kreditu irekia" aipatuz, itxuraz). Filosofia horren arabera, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako herritarrok bi aldiz ordainduko ditugu zerbitzu batzuk Espainiako Estatuak kupoaren etorkizuneko negoziazio bidez irekitako kredituaren kitapena onartu arte.

Dokumentuan egiten diren 19 proposamenak ez ditugu aztertuko, askok ez baitute lotura handirik arlo soziolaboralarekin. Ikuspegi sindikaletik bereziki garrantzitsuak diren atal batzuk aztertu eta kontsiderazio orokor batzuk egingo ditugu.

Oso deigarria da erreklamaturako eskumenak zein ordenatan agertzen diren. Biderkagaien ordenak biderkadura aldatzen ez badu ere, oso esanguratsua da zerrendaturako lehen ekimena Ertzaintzaren zabalkuntzari lotutakoa izatea (hau da lehen aldia, eta bakarra, "Estatuari ordaindu beharreko kupotik egingo den deskontua" aipatzen dena). Ondoren, garrantzi eta tamaina desberdineko beste hainbat eskumen agertzen dira: zinemagintzarako laguntza, itsas salbamendua eta turismoaren antolamendua, edota garrantzitsuagoak, hala nola laneko segurtasuna eta osasuna, portu eta aireportuak, trenbideak, justizia-administrazioa, espetxe-politika, kreditua, banka, aseguruak, balore-merkatuak, enplegu-politika aktiboak eta, azkenik, gizarte-segurantza.

Ildo honetan, adierazgarria da behin eta berriz aipatzen direla Estatuaren eskumenarekiko errespetua eta Estatuak legeria betearazteko eta oinarrien legeak garatu eta burutzeko asmoa (hala nola laneko segurtasun eta osasunean, arrantza-produktuak sustatzeko laguntzan, itsas salbamenduan eta kreditu eta bankan). Atal honetan, beraz, indarrean dagoen ordenamendu juridikoa gainditzeko borondatearen ordez ordenamendu hori osorik betetzeko asmoa ikus daiteke.

Erreklamaturako eskumen batzuen kasuan, egungo zerbitzu instrumentalen birmoldaketa administratibo bat besterik ez da egiten eta, beraz, ez da "autogobernuan sakontzen". Ikerketa zientifiko eta teknikoan adibidez, laguntzak eta aurrekontua programa bakar baten bidez bateratzea proposatzen da; enpresa txiki eta ertainei laguntzeko laguntza eta sustapen neurriak bildu nahi dira; kreditu, banka eta aseguruetan berriz, erreklamazio-zerbitzu bat sortzea proposatzen da. Ez dago Euskal Banku Publikoari, aurrezki-kutxen bategiteari edota bestelako neurri ekonomikoei buruzko aipamenik.

Zenbait atal berariaz aztertuta, ondoko alderdiak azpimarratu behar ditugu:

**a) Enplegu-politika aktiboak.** Izenburuak adierazten duen bezala, baztertuta geratzen da politika pasiboen erreklamazioa, hau da, langabeziako prestazioen onarpenari eta ordainketari buruzko funtsezko atala (kotizaziopeko zein kotizazio gabeko prestazioen mailan). Politika aktiboek dagokionez, Konstituzio Auzitegiaren epaian oinarrituta Gobernuak etengabeko prestakuntzako programak garatzen jarraituko duela iragartzen da, batere zehaztu gabe eta LABek ELAekin batera eskatzen duen Hobetuz finantzatzeko eta kupotik deskontatzeko edozein konpromiso baztertuta.

Prestakuntza eta Enplegurako Euskal Zerbitzuari dagokionez, bere "diseinua" iragartzen da INEMen zerbitzuak bere gain hartuko dituen Erakundearen plangintza egiteko egungo zerbitzuak (Lanbide Heziketako Behatokia, Enplegua

Sustatzeko Euskal Kontseilua eta Egailan) bilduko dituen Fundazio baten bitartez. Hartara, INEMen funtzioak Estatuak eskualdaketa erabakitzen duenean (konfrontazio politikorik gabe nekez gerta daitekeena) bere gain hartzeko azpiegitura materiala prestatu nahi da, besterik gabe. Nolanahi ere, uko egiten zaio Estatuaren mende egongo ez den Enplegu eta Prestakuntza Zerbitzu integral eta propioa sortzeari.

**b) Gizarte Segurantza.** Atal honetan, Konstituzioak eta Estatuak arlo honetan egiten dituzten aurreikuspenak gogoratzeaz gain, “ongizateari eta Gizarte Segurantzari lotutako zerbitzu guztiak koordinatuko dituen egitura bat sortzea” proposatzen da. Ikus daitekeenez, saihestu egiten da sakoneko arazoa, hau da, gizarte-segurantzako kotizazioak biltzeko ahalmena eta prestazioen maila definitzeko arau-eskumena izango duen gizarte-segurantzako sistema bat eratzeari. Azken batean, LHEE eratzeko funtsezkoa den gizarte-babesaren tratamendua oso urria da eta ez du gutxieneko konpromiso politikorik agertzen.

**c) Justizia-administrazioa.** “Atxikimendu libreko estatus berria” lortzeko Estatuarekin negoziatu beharreko itunaren edukian euskal botere judizial autonomo bat eratzea aldarrikatzen bada ere (aurrerago aztertuko dugu), atal honetan dokumentua “zerbitzu lagungarrien prestazioaren eta plantilen antolamenduaren arloan akordio sindikalak sustatzera” mugatzen da, hau da, negoziazio kolektiboaren barruan mahai sektorialean akordioak garatzera. Benetako botere judiziala dutenen eta Madril mendeko kolektiboak osatzen dituztenen, hau da, epaile, magistratu, fiskal eta idazkari judizialen inguruko ekimen oro baztertuta geratzen da.

**d) Espetxe-politika.** Oso deigarria da bereziki mingarria den gai honetan erabiltzen den hizkuntza aseptikoa, euskal presoak EAEko espetxetara eramateko exijentziari buruzko aipamena saihesten duena. Bestalde, hezkuntza, osasun, adingabeentzako laguntza eta abarri lotutako programen bidez espetxeratuta dauden pertsonen egoeraren hobekuntzak ez dakar inolako aurrerapenik autogobernuan, zigor-erakundearen arloan eskumen osoak bere gain hartzen ez badira (izan ere, Espainiako Autonomia Erkidego gehiagok antzeko proiektuak jarri dituzte martxan).

## **5. atala.- KONPROMISO DEMOKRATIKOA EUSKAL GIZARTEAREN BORONDATEAREKIKO: ELKARBIZITZARAKO ITUN POLITIKO BERRIA**

Atal hau, proposamenaren atalik garrantzitsua alegia, hainbat ikuspegitatik aztertuko dugu:

### **Proposamena eta prozesua**

Proposamena prozesua sakontzera ala hirukoaren eta, nagusiki, EAJren hauteskunde-interesak eta Ezker Abertzalearen neutralizazio politiko-errepresiboa konbinatuta prozesua desaktibatuzera zuzenduta dagoen zehaztea da argitu beharreko faktorerik garrantzitsua.

Gure ustez, euskal gizartearen hainbat sektore liluratzeko “flash” politiko bat da proposamena, ez du edukirik eta formaturik 98ko irailean hasitako prozesu politikoa bultzatuko duen alternatibatzat hartu ahal izateko.

Gatazka politikorako irtenbidea bi Estatuak elkarriketa eta negoziazio esparru atzerazekin batean kokatzeko antolatutako beharreko estrategiaren inguruko bateratze politiko, sindikal eta sozial zabala behar da prozesuan sakontzeko.

Proposamena garatzeko metodo unilateralak edo alde bakarrekoak (ia Lehendakariaren “kabinetera” mugatzen denak) hedapen politiko handiagoko itunak eta konpromisoak lortzeko borondate urria adierazten du, are urriagoa Batasunarekiko eta bestelako erakunde sindikal eta sozialekiko inkomunikazio-politika bati jarraitzen zaionean (hauei ekimenarekin bat egitea eskatzen bazaie ere).

Honi dagokionez, egoera honetan Espainiako makina mediatikoak lagunduta espazio politiko abertzalea (ezker abertzalea) baldintzatzeko aukera emango duen aldaketa-diskurtso batekin kokatzea da hirukoaren helburua. Ezker abertzaleak, aldi berean, Espainiako Estatuaren erasoaren ondorioak jasan beharko ditu (ilegalizazioak, eskubideen murriztapena eta abar). Hortaz, proposamenak onak eta gaiztoak dituen pintza politiko bat agertu nahi du Espainiako Estatuaren antzeko helburu taktikoarekin.

### **Proposamena eta eskubideak**

Proposamenari buruzko lehen gogoeta batean, gatazka politikorako irtenbide baten edukiak indartzearen alderdi positiboa azpimarra daiteke. Gainera, aipatzen diren euskal nortasunaren (Euskal Herriaren) onarpena eta etorkizuna erabakitzeke eskubidea elkarbizitza-esparru berri baten oinarri gisa kokatzen dira.

Dena dela, Euskal Herriaren identifikazio geografiko eta historiko zuzena egiten da baina, ondoren, proposamen politiko hiru herrialdetara soilki mugatzen da. Hau da, gure errealitate nazionalaren berrespenaren ondoren proposamenaren “debaluazioa” dugu, “onarpena” EAEn mugatzen baita. Horrela, “atxikimendu libreko estatusa” eta “estatutu” berria EAEn kokatu behar dira: “Euskal Autonomia Erkidegoaren ordezkartza-esparrutik –Euskal Herriaren osagai den heinean– eta gure etorkizuna libre eta demokratikoki erabakitzeke dugun ahalmena garatuta, Espainiako Estatuarekiko harreman-etapa berri bat planteatzen dugu atxikimendu libreko estatus berri batean oinarrituta”.

Hau da, onarpena eta erabakitzeke eskubidea Euskal Autonomia Erkidegoan kokatzen dira, itun edo estatutu berri baten esparruan. Euskal Herriak, herri gisa, ez du eskubiderik.

Proposamenak, beraz, bi gabezia garrantzitsu ditu. Alde batetik, ez zaio lehentasunik ematen euskal errealitate nazionalaren eta bere eskubideen onarpena lortzeko estrategiari. Bestetik, estrategia nazional baten oinarri izango den erakunde-tresna alternatiborik gabe Espainiako Estatuan indarrean dagoen nahas-mahas juridiko-politikoan sartzen den planteamendu bat bultzatzen da. Bi gabezia horiek zalantzan jartzen dute proposamenaren bideragarritasuna eta sinesgarritasuna subiranotasunaren aldeko estrategia nazional bateko tresna edo proposamen gisa.

### **Proposamena, elkarbizitza-esparrua eta Estatutu berria**

Proposamenak jauzi izugarria egiten du esparru demokratiko bati (Euskal Herriari eta Autodeterminazio Eskubideari) ate guztiak ixten dizkion indarreko legeria bere gain hartzeko jarreratik independentziaren aurrekoa (botere politikoa) dirudien “Baskongadetarako” bi urterako planteamendu batera.

Proposamenak “totum revolutum” bat egiten du Euskal Herriaren eta Estatuaren arteko harreman politikoen edo elkarbizitza politikoaren esparru berri baten oinarrien eta botere politikoa zehatzeko proposamen baten artean. Hau da, bakoitzaren fase politikoak eta edukiak nahasten dira. Gure “Downing Street” hori oinarri sendoko prozesu bat erakunde-mailan garatuko duen balizko euskal “Stormont” batekin nahasten da (euskal-espainiar-frantziar “Downing Street” hori hain zuzen ere).

Faseak eta edukiakategiteko planteamenduak 77-79ko prozesu penagarria mimitikoki errepikatuzera garamatza. Autonomiaren aurreko garai hartan, lau herrialdeak eta Autodeterminazio Eskubidea aipatzen ziren hasieran eta egungo estatutuarekin amaitu zen. 23 urte behar izan dira estatutua bere benetako dimentsioan kokatzeko; izan ere, Estatuak gure errealitate nazionala eta gure eskubideak ez onartzeko duen tresna da.

Orain ezin dugu berriz ere Euskal Herriko eremu jakin bat boterez “bete” lurralde osoan prozesu demokratiko bat garatzeko oinarriak finkatzen ez baditugu, hipotekarik eta inoren injerentziarik gabe. Hau da, ez dugu Estatutua + 3 onartzen gure errealitate nazionala eta eskubide politikoak onartzeko oinarririk gabe.

### **Proposamena eta itun berriaren edukia**

Dokumentuak “esparru soziorabial, ekonomiko eta gizarte-babeseke propio baten” garapena aldarrikatzen du. Sindikalismo abertzalearen planteamendu programatikoa –LHEE alegia– itun berri baterako proposamenaren espresuki agertzea positiboa da. Nolanahi ere, dokumentuak ez du zehazten gai-esparru bakoitzaren (politika ekonomikoa, zerga-sistema, lan-harremanen sistema, aurreikuspena, ongizatea eta gizarte-segurantza) oinarriko edukia. Aipatu besterik egiten ez denez gero, zalantzak sortzen dira proposamenaren benetako hedapen politikoaren inguruan.

Are zalantza-koagoo da “Euskadiko instituzionalizazio politikoa bermatzeari” buruzko atal laburra. Ikusi beharko dugu zertan zehazten den “esklusibotasuna segurtasun publikoan, toki eta foru administrazioan eta zuzenbide pribatuan, auzotasunaren, familiaren, ondare-harremanen, enpresaren eta gizarte zibilaren esparruan”. Euskal erakundeek arlo horien erregulazio juridikoa eksklusibotasun-erregimenean egiteko, ezinbestekoa da independentziazatik hurbil egongo

litzatekeen subiranotasun-egoera bat eta hori oso urrun geratzen da Lehendakariaren zein EAJko beste burukide bartzuen adierazpenetatik. Interpretazio bat aurreratzearen, proposamen hau betetzeak Corcuera Legea, Kode Penalaren zati bat, Adingabeei buruzko Legea, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legea, Kode Zibila, Merkataritza Kodea, Lege Konkurtsala, Hiri Errentamenduei buruzko Legea eta abar indargabetzea eskatuko luke (partikularren, pertsona fisikoen edo juridikoen arteko harremanak arautzen dituen ordenamendu juridikoa osoa azken batean).

Azkenik, "euskal botere judizial autonomo" baten eskaera aipatu behar dugu. Proposamenaren terminoak garbiak dira: Estatu justizia-administrazioan ordezkatzeko instantzia judizial guztiak barne hartzen dituen botere judizial propio baten bidez. Hala eginez gero, horren dimentsio politikoak gizarte-segurantzako kutxa bakarraren hausturarena gaituko luke. Estatuaren botereetako bat desegiteak ondokoa eskatzen du: subiranotasunaren aldeko mugimenduaren bilakaera handia, Espainiako botere judizialaren erabateko deslegitimazioa bere alderdi guztietan (hala nola alderdi penalean, zibilean, sozialean, administrazioarekiko auzitarakoan, familian, merkataritzan) eta herritarren konfiantza izango duen euskal egitura judizial osoa "ex novo" sortzeko tresnak.

Hau adierazi ondoren, indarrean dagoen legeria errespetatu edo bere gain hartu beharra ezin da erabili esparru juridiko-politiko aldatzeko edozein proposamen baldintzatzeko edo horri txantaje egiteko. Oker dago Lehendakaria legaltasuna aldatzeko legitimitatea legaltasuna betetzeak berak ematen duela dioenean. Botere publikoentzat Legea betetzearen ondorioa den legitimitatea, lehenik eta behin, botere publiko horiek aukeratzen dituen herri-borondatearen adierazpenak ematen du. Lehendakariak euskal gizartearen borondatea baztertzen du eta, beraz, legitimitate iturri bakarra ukatu.

### **3. LAB-EN EKARPENA**

LABen ustez, premiazkoa da gogoeta eta truke espazio bat planteatzea gatazka politikoa gainditzeko eta euskal gizarteari, herritar guztioi barneko eta kanpoko (Estatuekiko) harremanak finkatzeko aukera emango dien prozesu demokratiko bat ezartzeko oinarriak jarri nahi dituzten indar politiko, sindikal eta sozialen artean.

Lehentasunezko helburua konfrontazio politiko-demokratikoko erakunde eta gizarte tresnak definituko dituen eta euskal gatazka Estatuaren eta nazioarteko herrialdeen aurrean jarriko duen itun politiko bat finkatzean datza. Gasteizko Gobernuak, nazio-mailako itun politiko, sindikal eta sozial zabal baten esparruan, oso subjektu garrantzitsua izan beharko luke, Udalbiltzarekin batera, gatazkaren onarpena eta irtenbidea aurkitzeko estrategia. Ildo honetan, beharrezkoa da gatazkari irtenbidea emateko prozesu batean herriaren interlokuzio orokorra gauzatzea.

Horrelako konpromiso politiko baten bilaketa bateraezina da indar politiko bakoitzaren proiektu estrategikoei uko egitean oinarrituta edo hauteskunderi begira jarritako epe laburrerako helburu politikoei eraginda egiten diren interpe-lazioekin.

#### **3.1. Konpromiso politikoaren edukiak**

Euskal Herriaren onarpenak eta Autodeterminazio Eskubideak ondorengo edozein eraikuntzaren ZORU POLITIKOA osatzen dute. Mugimendu abertzalearen egungo erronka Estatuari OINARRI POLITIKO horiek hartzea eta, ondoren, barneko eta kanpoko harremanak definitzeko prozesu demokratiko bat ezartzea da.

Oinarri politiko horiek lortzeko estrategian tresnak, interlokuzioa eta ekimen zehatzak definitu behar ditugu erakunde eta gizarte mailan (mobilizazioak, herritarren plantoak, erreferenduma, kontsultak...). Gai hauen inguruan, prozesuarekin konpromisoa hartuko duen eta Madril eta Parisen legaltasuna eta estrategia "de facto" zalantzan jarriko duen bateratze politiko, sindikal eta sozial bat antolatu behar dugu.

Hau da sektore abertzale eta aurrerakoien artean lor daitekeen "Maltzaga" politikoa eta, horretan oinarrituta, gizarte-aktibazioa, bestelako sektore politiko eta sozialentzako interpelazio positibo bat eta nazioarteko herrialdeei egiteko eskaera bat garatu behar dira. Hau da, prozesuak borondate integratzailea izan behar du baina, era berean, gara-

tzeko eta Estatuak ezartzen dituzten mota orotako mugek hipotekatzen ez uzteko borondate tinkoa izan behar du abiapuntu.

Eduki hertsiki demokratikoek eta indar politiko bakoitzaren proiektuarekiko errespetuak ematen diote indarra eta proiektzioa itun honi.

Udalbiltzak duela gutxi aurkeztu duen proposamena tresna politiko garrantzitsua izan liteke helburu hori lortzeko.

### **3.2. Lan Harremanetarako Euskal Esparrua eta prozesu politikoa**

Estatuaren inposaketaren estrategiak ezin du hipotekatu eszenatoki politiko berri baterako prozesua. Euskal erakundeek herritarren eta gizarte-eragileen borondatearekin bat etorriko diren jarraibide politiko eta sozialak ezarri behar dituzte.

Esparru soziorabolean, enplegu eta gizarte politiketan eragin negatiboa duen esparru juridiko-politiko baten ondorioak jasaten ditugu oraindik. Estatuaren erabaki edo akordioekiko erabateko mendetasunak sindikatuek eta langileek herritarrengan eragin handia duten gaietan edo politiketan behar duten protagonismoa eragozten du.

“Gizarte-elkarrizketa Euskal Herrian” izenburupean, LABek proposamen bat egin zuen erakundeek, sindikatuek eta enpresariak gure herrialdeko gizarte eta enplegu gaiei erantzuteko bete behar duten funtzioan etapa berri bati ekiteko oinarriak finkatu nahian. Ekimen honen helburua inposaketaren makineria horri erantzutea eta Lan Harremanetarako Euskal Esparrua gauzatzea da.

Proposamen horren edukia berresten dugu (eranskina) eta Lan Harremanetarako Euskal Esparruaren aldeko estrategia erreal, aurrerakoi eta partekatu bat antolatzea eskatzen

# Eranskina

## Gai sozialen euskal eztabaidagunerako proposamena

### Lan harremanetarako euskal esparruaren alde

#### Azalpena

Sindikatuaren mugimendua funtsezkoa da gai sozialen eztabaida eragingarrikeri bultzatuko badugu. Hala ere, enpresaburuaren antolakundeek nahiz gaur egungo esparru juridiko-politikoak hein handi batean mugatzen dute Euskal Herriko sindikatuaren ahalmena:

- Gipuzkoa, Araba eta Bizkaian, Lan Harremanen Kontseilua erabat agortu edo mugaturik dago sindikatuaren eta ugazaben ordezkariak erakunde gisara. Oraingo esparruaren baitan, jendarte eta lan arloko eskumenak oso urriak dira, EAEko gobernuak etsipenez hartu du urritasun hori, eta ugazaberiak ez du zirkulazio ere egin erakunde horren autonomia eta taxuzko garapena ahalbidetzeko.
- Nafarroan, LAB eta ELA sindikatuak antidemokratikoki kanporatzeaz gain, egoera ordezkariak da oso, eta Madriletik datozen hitzarmenak, itunak edo dekretuak baizik ez dira garatzen.
- Ipar Euskal Herrian ez da berariazko esparrurik sindikatuak, eragile ekonomikoak eta erakundeak lotzen dituenik: Garapen Kontseilua edo Pirinio Atlantikoen Kontseilua ez dira nahikoak.

Lan egiteko moldeak, jorratu behar diren gaien garrantzia eta esparrua, eta, bereziki, ugazabek elkarriketa soziala Euskal Herrian garatzeari eman dioten erantzuna -Espainiako edo Frantziako alorretara zuzentzen baitute- lehenbailehen bideratu behar dira. Beharrezko baldintzak bermatu behar ditugu sindikatuak eta langileek ekonomia eta lan politikan izan behar duten eragina erazkoa izan dadin.

Hala sindikatuak eta jendarte-eragileak, nola euskal administrazioak, ezin gara geldirik egon lege ezarpen iraunkor horren aurrean, ez eta langile, enpresaburu eta euskal erakundeak ez ordezkariak gain, Euskal Herria sozial eta ekonomikoki egituratzeko balio ez duten hitzarmen sozioekonomiko eta laboralen aurrean, ez eta lana eragingarritasunez sortzeko eta lan merkatuan gero eta zabalago dabilen prekaritate eta bazterkeriari aurre egiteko balio ez duten hitzarmenen aurrean.

Egungo esparruan, administrazioek ez dute lege-ahalmenik oinarritzko politika soziolaboralean eragiteko. Bestalde, sindikatuak eta ugazabak lana eta lan baldintzak ukitzen dituzten akordioak sinatzeko alderdi erabakigarriak izan arren, administrazioak ezin dira akordio edo hitzarmen horietatik bazter geratu, edota Euskal Herrian dagoeneko ez den elkarriketako ikusle soil edo begirale isilak izan.

Euskal Herriak Lan Harremanen Euskal Esparrua behar du, gai sozialen eztabaidagune iraunkorra sustatzeko gunea abian jarri behar du, eta gune horrek hirutarikoa izan behar du: sindikatuak, enpresaburuak eta administrazioa. Enpleguaren aldeko eta prekaritatearen aurkako neurri eragingarri propioak sustatzeko esparrua lortu behar dugu.

Eta estrategia horretan, behar-beharrezkoa da hiru alderdiok gune autonomiadunak sor ditzagun, ekimen ekonomiko eta soziolaboralak proposatu eta adosteko, botere politiko ezaren eta estatuen ezarpenen gainetik. Apurka-apurka

osatu behar dugu Lan Harreman eta Gizarte Babesaren Euskal Esparru beregaina, ekimenez, hitzarmenez eta hainbat tresnez baliatuta.

Helburu horretarako mahairatu dugu gai sozialen euskal eztabaidagunerako proposamen hau, eta jendarte-eragile, sindikatu, erakunde eta alderdi politikoei igorri diegu. Egin beharreko urrats oro egingo ditugu ekimen hau aurrera eramateko, gai honetan zeresanik duten eragile guztiekin elkarlanean, eta, hartara, proposamen hau bidali eta hark jasotzen dituen nondik-norakoak elkarrekin aztertzeraz gogatu nahi zaituztegu.

Ildo horretan, uste dugu politikarien eta gobernuen konpromisoa nahitaezkoa dela, elkarriketa eta negoziazioa zinez bultzatu nahi baditugu Euskal Herrian, enplegu eta jendarte-babeseko politiketan erabateko lege ahalmena eskuratzeko aldera. Halaber, beharrezkoa da konfederazio mailan informazio eta mobilizazio ekintzak sustatzea, gai sozialen eztabaidagunerako proposamen honi eta beronen eduki zehatzei euskarri eta babes emateko.

## Proposamena

1. Sindikatu, erakunde eta jendarte-eragileek ekimen zehatzak sortu eta bultzatzea, euskal esparru ekonomiko eta soziala lortzeko. Euskal Herriak nazio mailako tresnak behar ditu ekonomia, jendarte eta lan arloetan, lan harremanen egoera aztertzeko, gure lan eta bizi egoera hobetzeko, gure hizkuntza eta kultura garatzeko eta Euskal Herria Europa zein mundu zabaleko herriekin batera berezko nortasunaz aritzeko.

2. Administrazio, enpresaburu eta sindikatuen artean elkarriketa guneak garatu, EAEn, Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian konpromisoak hartzeko xedez. Esparru hauek honako helburuak izango lituzkete:

2.1. Euskal Herriko lan-harremanen eta lan merkatuaren egoera aztertzea eta dagozkion neurriak hartzea babes sozialaren eta lan-politiken arloan lege-esparru propioa eskuratzeko.

2.2. Elkarriketarako eremua sortzea, negoziazio kolektiboa garatzeko esparru propioa antolatu dezagun.

2.3. Enpleguaren eta babes sozialaren arloetan lehenbailehen egitasmo bati ekitea. Egitasmo horretan ondoko proposamenen negoziazioa kontuan hartu beharko litzateke:

- Lan-orduak gutxitu lanpostuak sortzeko. Horretarako, 35 orduko lan-astea ezarri behar da, oraindik ezarri ez den sektore eta lurraldeetan.
- Berariazko neurriak hartu prekarietatearen eta bazterkeriaren aurka jotzeko. Helburu zehatzak finkatu behar dira, eta horiek bermatzeko segimendu-tresnak ezarri.
- Hainbat erakundekin batera lan-istripuei aurre egiteko ekintza-egitasmo bati ekin. Egitasmo horrek, hasiera batean, honakoak egin beharko ditu: araudi egokia ezarri eta horren hausteak zigortu; ikuskatze lan eragin-garriak bultzatu; prestakuntza garatu; sindikatuari ahalmen handiagoa eman, arrisku egoerak salatu behar diren eta prebentzio-neurrien kontrola egin behar den guztietan.
- Aukera-berdintasuna bermatzeko egitasmoa sustatu. Egitasmo horrek arau-emaitza izan beharko du eta beharrezko tresnez baliatu beharko da lan munduan emakumeek jasaten duten bazterkeria gainditzea helburu duten politika zehatzak bultzatu eta ebaluatzeko.
- Euskara lan arloan normaltzeko egitasmoa garatu. Egitasmo horren helburua, hizkuntza lantokietako barne-harremanak garatzeko tresna gisa indartzeaz gain, kanpoko komunikazioan ere euskararen balioa handitzea izango da (etiketatzea, produktuei buruzko informazioa...).
- Euskal Herriko berezko lan egutegia.